

ZM

ZORROTZ MORROTZ

34. irakia 2015eko UZTAILA



LOS CAÑEROS

AZKEN TXIKITEROAK

MARGOTU ELKARTEA

Allianz 

Menfer Insurance Group S.L.

Geltoki bidea 1, behea
48013 Zorrotza

Tel. 946551773
Sakelakoa. 691218922

E-mail: valerio.merino@allianzmed.es



...Imajinatzen duzu auzoa merkataritarik gabe?

ESKAINTZARik ONENA ZORROTZATik IRTEN BARIK

**Berton
kontsumitu**



**kafetegia
aLBoka**

Cordelería, 5
Zorrotza - 48013 BILBAO
Tfno. 94 499 29 43



**MESON
OKONDO**

Pintxo askotarikoak
7etatik, 23etara, zabalik

Zorrotza Kastrexana errep. 8 • Tel: 944 393 766



ROCKET TAVERN

Plater konbinatuak, hanburgesak, oilasko erreak... FRAI JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98

Herritarron benetako partaidetza, instituzioen funtzionamendurik onena

Orain dela gutxi maiatzeko udal eta aldundietarako hauteskundeen ondoriozko udal korporazioak osatu dira. Hautatutako karguak hasiera-hasieratik herritarron zerbitzura egon behar direla argi daukagu, izan ere, herritarrok horretarako hautatu baititugu.

Gure aldetik, aldundi eta udalen jardueretan herritarron benetako partaidetza aldarrikatzen jarraituko dugu. Ikustear dago...

Beste aldetik, Bilboko Auzo Elkarten Federaziotik anbizio eta garrantzi handiko proiektu batean lan egiten ari gara. Proiektu honek Bilboko gune degradatuak eta gure auzoek irisgarritasun arlotan aurkezten dituzten arazo larriak jakitera eman nahi ditu. Bilbo ez da soilik erdialdea.

Agur bero bat.



HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!!

ZM zure e-postan jasotzeko, bidali mezu elektronikoko bat **zmorrotz@gmail.com** helbide elektronikora, gaiaren laukian **"harpidetza"** jarriz



ZM

ZORROTZ MORROTZ

Zorrotzako kultur aldizkaria
34. zenbakia. 2015eko uztaila

Argitaratzen du:

Zorrotzako Euskal Txokoa

AEK euskaltegia

Zalbidea, 7 behea

48013. Zorrotza. Bilbo

Tfnoa: **94 441 49 20**

622 61 90 20

Emaila: **zmorrotz@gmail.com**

 **facebook.com/ZorrotzMorrotz**

Koordinazioa:

Aitor Marín

Diseinua eta maketazioa:

amc diseinua

Erredakzioa:

Ibai Barrios

Ainara García

Igor Gutiérrez

Haizea Olleta

Aitor Marín

Iratze Pérez

Lorna Yáñez

Zuzenketak:

Iñigo

Laguntzaileak:

Karlos Rodríguez

Santurtziko Irakurzale Kluba

Inprimaketa:

Arin Graf



Bilbao
10111
AYUNTAMIENTO
EUSKARA SAILA
ÁREA DE EUSKARA

zurea da fitza
euskara
no te lo pierdas.



ASKABIDE
kultur elkartea
Zorrotza

★ *independentzia!*
SOZIALISMOA!

ITZULERA GOGOAN.
TAUPADEN ARRAZOIA

Frai Juan 20 • Tel: 688 855 648
askabidezorrotza@gmail.com

Giro ederra Zorrotza Egunean...

Ibai Barrios

2007an ospatu zen lehenbiziko aldiz Zorrotza eguna eta urtero legez hainbat ekitaldi prestatu zituen Jai Batzordeak Taldeen Koordinakundearekin batera. Goizean goiz txalapartaren doinuak hasiera eman zion egun osoan zehar luzatu zen jaiari. Eguzkia lagun, auzoko zenbait koadrila paella txapelketan parte hartu zuten, Askabide koadrila txapeldun suertatu zelarik.

Artisau azoka ere izan genuen eta "Irrien lagunak" antzezlan txikiak asebetetzeko parada ezin hobea suertatu zen eguerdiko lehen orduetan, jendeak poteotxo egiten zuen bitartean. Azahara dantza taldearen ikus-



kizunak bete zituen arratsaldeko lehen orduak eta eguzkiaren azken izpiekin batera, Fabe de Fuka elektrotarangak amaiera ezin hobea eman zion jaiegunari auzoko tabernak girotuz.

...eta baita San Juan bezperan ere

Iratze Pérez

San Juaneko gau magikoa prestatzen haste-ko, Zorrotzako Euskal Txokoak babestutako "Pilo Pilo Korapilo" umeentzako antzerki-az gozatu zuten txikienek.

Sua piztu baino ordu eta erdi lehenago, "Granujas a todo ritmo" musika ikuskizun mugikorrek Zorrotzako kaleetatik kalejira

egin eta giroa piztu zuen. Parkera heltzerakoan, dantza egiteko eta argazkiak ateratzeko jendea zain zutelarik. Sua, oraindik egun-argia zegoelarik piztu zen, baina behala gauaren iluntasunak eta suaren sugarrrek egindako kontrasteaz gozatu ahal izan genuen Azoka plazan bildutakook. Txokolatea, beti bezala, gozo-gozo zegoela nabari utzi zuen zegoen jende-ilara luzeak.



Euskal Txokoak antolatutako XIX. Ipuin lehiaketaren sariak



Zorrotz Morrotz

Urtero bezala, aurten ere Zorrotzako Euskal Txokoak ipuin lehiaketa antolatu du, aurten-goia XIX. edizioa izanik. 100 ipuin baino gehiago jaso dira eta eskerrak eman nahi dizkiegu pare hartu duzuen guztioi, eta nola ez, hurrengo edizioan ere zuen ipuinak jasotzea espero dugu.

Sari banaketa iragan ekainaren 20an ospaturiko "IX. Zorrotza Eguna" barruan burutu zen eta irabazleek "Irrien Lagunak" taldea eta Euskal Txokoko kideen eskutik jaso zituzten euren sariak. Aurretik, lehiaketan aurkeztutako lagun guztiek haien parte hartzea eskertzen zuen oparitxo bat jaso zuten.

Irabazleak honako hauek izan ziren:


12 urtetik behera:

- 1. saria: Markel Fernández Sanchez (Sopuertaabenturarako sarrerak).
- 2. saria: Irati Mirón Arce ("Matraka" mahai-jolasa).

DBH eta batxirlegoko ikasleak:

- 1. saria: Naia Zubero Pérez. (100 euroko bonoa ELKAR dendetan gas-tatzeko).
- 2. saria: Ane Ruiz Fernandez ("Auskalo" mahai-jolasa).

Anima zaitetz eta parte hartu hurrengo edizioan!



*sorrendua
piztu!!*

amc
diseinua

Diseinu grafikoa
irudi korporatiboa • web • komunikazioa ...

Kartelak, Aldizkariak, Katalogoak, Folletoak, Kamisetak, Opari pertsonalizatuak...

www.amcdiseinua.net

Aurrekontuak eta info +: **Tel. 657 732 934** • aitor@amcdiseinua.net

“Nire auzoko merkataritza” I. Argazki lehiaketaren sariak



Zorrotz Morrotz

Lehendabizikoz antolatu du aurten Zorrotza Laguntasuna merkataritza elkartek “Nire auzoko merkataritza” argazki lehiaketa. Sariak Zorrotza Egunean zehar eman ziren, Gure Lurrak merkataritzari buruz antolatu-tako ekintzaren sariekin batera.

Alberto Carvajalen argazkiak eskuratu ditu lehenengo sariaren 300 euroak. Alberto Lacinen argazkiak, aldiz, bigarren saria eta honi dagokion 200 euroak jaso zituen. Guztira, hogeita hamar argazki baino gehiagoren artean hautatu behar izan du epaimahaia.



Bestalde, Zorrotza Eguneko ekitaldien barruan ere, Laguntasuna dendari elkarteak auzoko dendetan gastatzeko zozketatutako 1000 euroak bi ordutan gastatu zituen auzotar batek. Zorionak berari ere!

Lehiaketako 1.go eta 2. saria hurrenez hurren

Martxan dago Bidegain kaleko igogailua

Zorrotz Morrotz

A8 autopista gaineko oinezkoentzako pasabidea eta Zazpilanda auzoa lotuko ditu, aldapa erdian, Bidegain auzoan geralekua duela. Igogailu berria 13 lagun sartzen dira eta 10 metroko desnibela gaindituko du. Gainera, energia aurrezteko sistema dauka. Obra honetarako 720.000 euroko inbertsioa egin da eta Udalaren Elementu Mekanikoen Plan Bereziaren barruan dago.



Fray Juan kalea

“Fray Juan” asko egon daiteke, baina Zorrotza-koa, bat baino ez dago. XV. mendean Zorrotzan jaio eta gero, Burtzenako Merced monastegian sartu zen. Bertatik atera zen Granada aldera joateko, Ordenak ezarritako konpromezuak betetzeko asmoz: hots, musulmanek preso hartutakoak askatzea. Granadako Baeza herrrian askatasunik gabe, kateaturik eta oinazetan kaleak ibili ondoren, harrika eta makilaka hil egin zuten.



BAR
ANAKAK
ROCK

ASTILLERO 12
TLFNO: 94 812 95 48



Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75 Telefonoa: 94 442 44 68	TAILERRAK ETA ZERBITZUAK Zorrotza-Kastrexana errep. 75 Telefonoa: 94 442 17 12
----------------------------------------------------------------------------------------------------	---------------------------------------------------------------------------------------------

“Alemaniarrak oso diziplinatuak dira. Ez dago malgutasunik”



Igor Gutiérrez

EGOITZ CASTAÑOS

Bizitokia: Berlin (Alemania)

Noiztik: 2007tik

Adina: 35 urte

Lanbidea: Ingeniaritza mekanikoa

Orain dela zortzi urte Alemaniara heldu aurretik, auzotik kanpo zebilen Egoitz. Bikotekidearekin batera Berlinen bizi da eta orain dela gutxi alaba bat izan du.

niretzat ez zen batere traumatikoa izan, azken finean euskaldunon izaera ere nolabait hotza baita.

Noiz eta zergatik erabaki zenuen Alemanian bizitzea?

Orain dela zortzi urte baino gehiago etorri nintzen lan egitera Alemaniara. Garai horretan jadanik kanpoan bizi nintzen, hain zuzen ere Madrilen, lan eskaintza on bat egin zidaten Berlinetik eta hartzea erabaki nuen. Hona etortzeko arrazoiak asko ziren, batez ere pertsonalki garatzeko aukera ezin hobea iruditu zitzaidan. Beste hizkuntza bat ikasteko aukera ere oso erakargarria zen niretzat. Eta profesionalki ere oso interesgarria suertatu zitzaidan, izan ere nire arloa, ingeniaritza mekanikoa alegia, tradizio handikoa da Alemanian.

Gogorra egin zitzaizun hango lan eta bizi ohituretara moldatzea?

Egia esanda ez, artean familia eta herritik urrun bainengoen, beraz beste pauso bat ematea bezala izan zen. Gainera zorte handia izan nuen nire bikotekideak aldi berean hemen lana aurkitu zuelako. Agian hasieran gogorrena alemaniarrekin harreman estuak egitea da. Beraien izaera nahiko hotza da, baita pixka bat individualista ere. Dena den

Erraza al da bertan lan duin bat topatzea?

Nire ustez ez da batere erraza, batez ere Alemaniako ekialdean, han langabezia nahiko altua baita. Egia da arlo batzuetan (ingeniaritzan, medikuntzan, finantzetan eta abar) eskaintza handia dagoela baina txoko horietatik kanpo gauzak zeharo desberdinak dira. Adibide zehatza da orain dela gutxi famatu bilakatu diren minijob-ak, hots, 450€ edo gutxiagoko lanpostua. Iritzi orokorra da Alemania oso estatu aurreratua dela baina gutxiak dakite hemen ez dagoela gutxieneko soldatarik, enpresaburuak nahi duena ordain dezake. Horrexegatik askok ez dute gastu arruntei aurre egiteko haina irabazten eta gizarte-laguntzak eskatu behar dituzte. Bestetik, azpi-kontratazioa ere oso zabalduta dago.

Zer da handik gustukoena duzuna?

Dudarik gabe nire lan baldintzak. Eta ez naiz ari soldatari buruz baizik eta ordutegi malguari buruz, profesionalari zor zaion errespetuari buruz eta abar. Adibidez, debekatuta dago egun batean 10 ordu baino gehiago lan egitea eta nagusiak sekulako errieta egiten digu

arau hori hautsiz gero! Bestetik, asko gogoko dut denek leku guztietara txiringaz joateko duten ohitura. Askok parrandan ateratzeko ere erabiltzen dute! Berlinetik kontzertu mota asko daudela ere gustuko dut, baita umeentzako dagoen eskaintza zabala ere. Gastronomía ez da batera aipagarria baina ogia primerakoa da. Eta noski, garagardea ere aipatu behar.

Zer da Euskal Herritik gehien duzuna faltan?

Dudarik gabe familia eta lagunak. Itsasoa eta mendia ere oso ditut faltan, Berlinen ez dago mendirik eta itsasoa nahiko urrun dago. Baina jendea ere bai, auzoko elkarteak, mugimendu sozialak, jaiak, San Mames eta beste hainbat eta hainbat gauza. Eta, nola ez, janaria.

Zorrotzara maiz etortzen zara?

Urtero hiru edo lau aldiz joaten saiatzen naiz baina orain umearekin logistika pixka bat konplikatuagoa da. Familia ere sarritan etortzen da gu ikustera.

Nolakoa da Alemanian guraso izatea?


Primerakoa dela uste dut. Euskal Herriarekin konparatuta abantailak eta laguntzak itzelezkoak dira. Nik orain lanaldi murriztua daukat, hau da, astean 30 ordu lan egiten dut nire alabarekin denbora gehiago igarotzeko. Eta kontratu aldaketa eskatu nuenean ez zidaten trabarik ipini, horrelako eskaerak nahiko ulergarriak iruditzen zaizkie. Horrez gain, umea jaio eta gero guraso bien artean 14 hilabete-ko baja partekatu dezakete, bakoitzak bere soldataren %60 kobratzen duelarik. Ez hori bakarrik, gero hilero 184€-ko laguntza ema-



ten dizute eta beste laguntza bat umea haurtzaindegira eramaten baduzu. Gainera zerga murrizketa txiki bat egiten dizute eta beste motatako laguntza batzuk ere ematen dituzte kasu berezietarako.

Zein da zuretzat alemaniarren ezaugarririk aipagarriena?

Orokorrean oso herri konstantea eta diziplinatu da proposatzen duena lortzeko, epe luzeagora pentsatzen da hemen. Gerrako hondamendiaren ondoren Alemania bi sistema ekonomiko zeharo desberdinetan zatituta egon zen baina, hala ere, Alemania biak, industria mailan munduko nazio aurreratuenetarikoak izatera heldu ziren. Nire ustez hori oso esanguratsua da. Gauza negatibo bat ikusten diet, alegia, nire iritiz arauekin itsututa daudela. Gauza sinpleetarako ere arau gehiegi jartzen dituzte eta malgutasun hitza ez dute ezagutzen. Eta dena aurreikusuten munduko txapeldunak direla. Alemaniarrunt batek gaurtik hiru hilabetera arratsalde eta asteburu guztiak lotuta dauzka!



”la Caixa”

Zeu zara izarra

Abaro estarta, 5
48013 Zorrotza (Bilbo)
Tel. 94 459 00 90

www.lacaixa.es

MARGOTU ELKARTEA



MARGOTU ELKARTEA

Etorkizun hobe baten lehenengo pintzeladak

Gizarteratze eta laneratze prozesuan emakumeak eta gazteak laguntzen dituen erakundea da Margotu Elkartea



Testua: Haizea Olleta

Argazkiak: Margotu elkartea

Margotu elkartea gizarte-bazterkeriaren kontra lan egiten duen erakundea da. Gure auzoan nahiko berria den elkartea izan arren, bere ibilbidea pertsonen garapen integralararen sustapenean laudagarria da.

2002tik “Emakume eta familia” programa martxan dauka Margotu elkarteak. Hasiera batean Basurtuko Auzo Etxean lan egiten zuten, baina eskaini nahi zuten laguntzarako, eraikina txikiegi gelditu zitzaien. Aldaketa batzuen ostean, egoitza Zorrotzara ekarztea erabaki zuten, gurean izaera honetako zerbitzuen gabezia ikusita.

Programa honetan orokorrean guraso bako-reko familiekin lan egiten dute eta gehienetan hauek emakumezkoak dira. “Emakumeekin lan egiteko orduan konturatu ginen euren seme-alabekin ere lan egin behar

genuela, bestela gure zentrora etortzea ezinezkoa egiten zitzaien eta”, azaltzen digu Margotu elkarteko presidentek Leire Salaberriak.

Amatasunaren lanketa

Margotu elkarteak familiekin haurren hazkuntzan lagungarriak diren tailerrak egiten ditu. Gaur egun bi dira dituzten programak: Amatasuna eta Bat Egin. Alde batetik, Amatasunean 0-3 urte bitarteko umeak dituzten familiekin lan egiten dute umeen hazkuntzan erlaxionatuta dauden gaietan, hala nola, umeak amarekiko duen atxikia. “Aita gehiagok parte hartzea gustatuko litzaiguke, baina orokorrean amak dira etortzen direnak”, dio Leire Salaberriak.

Bestetik, Bat egin programa hiru urtetik gorako seme-alabak dituzten gurasoentzako sostengu programa da, non gurasoek euren haurren esperientziak kontatzen dituz-

ten eta hezitzaileek hauen hazkuntzarako jarraibideak ematen dizkieten.

Horretaz gain, emakumeen gizarteratze eta laneratze prozesuetan laguntzeko bi pres-takuntza zerbitzu eskaintzen ditu. Lehe-nengoa lan mundutik oraindik nahiko urrun dauden emakumeei zuzenduta dago eta bertan lan mundurako premiazkoak diren trebetasunak lantzen dituzte. Bigarrenaren hartzaileak ostera, lan esparrutik gertuago dauden emakumeak dira eta lan bilaketa prozesu guztian laguntza eskaintzen diete, curriculumaren eraketatik hasita lan elkarriz-ketetara arte.

Gazteentzako prestakuntza

Margotuk ez ditu soilik emakumeak lagun-tzen lan munduan murgiltzen, gazteei zu-zendutako plan bereziak ere badituzte mar-txan. Haietariko bat Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ez duten 15-17 urte bitarteko nerabeei egokituta dago. Lanbideren bitar-tez, bi urteko iraupena duten ile-apainketa, elektrizitate, estetika eta administrazio ikas-taroak doan egin ditzakete.

Horretaz gain, haurrak haur izaten jarraitu de-zaten Margotu elkarteak berarekin lan egiten duten familien umeentzako aisialdiko ekintza ezberdinak eskaintzen ditu. Urtean zehar adi-bidez, etxeko txikientzako hezkuntza-lagun-tza ematen dute. Aurten berritasun moduan, Bizkaiko familientzat udako hiri udalekuak antolatuko dituzte. Hauek ekainaren 29an hasi dira eta uztailaren 8an bukatu.



**Gizarte-bazterkeriaren kontra
lan egiten du erakundeak.
Gure auzoan nahiko berria den
elkarteak izan arren, bere ibilbidea
personen garapen integralaren
sustapenean laudagarria da**

**Margotu elkarteak familiekin
haurren hazkuntzan lagungarriak
diren tailerrak egiten ditu**

**Gazteei zuzendutako plan
bereziak ere badituzte martxan.
Haietariko bat DBH ez duten
15-17 urte bitarteko
nerabeei egokituta dago**

A graphic for ARIN GRAF, S.L. INPRENTA. It features a stylized white crescent shape on a dark background. The text "ARIN GRAF, S.L." and "INPRENTA" is in a bold, sans-serif font. Below this, the contact information is listed: "Zalbidea estarta, 13-2.", "48013 ZORROTZA - Bilbo", "Tel/Fax: 94 441 38 23", and "info@aringraf.com". There is a small "ARIN GRAF" logo on the left side.

A graphic for cafe txinbo. It features the text "cafe txinbo" in a stylized font. Below this, the text "Especialitateak:" is followed by "Tapak eta errazioak" and "Kanapeak". There is a stylized grey bird logo. At the bottom, the contact information is listed: "Abaro estarta, 10" and "Tel. 94 608 85 74".

A graphic for BAR KUPELA. It features a circular logo with a wooden texture. The text "BAR KUPELA" is in a bold, sans-serif font. Below this, the text "Zorrotza-Kastrexana 4" is listed.

“Ez gara abesteko jaioak. Ondo pasatzeko geratzen den koadrilla baino ez gara”



Txikiteo ohitura galtzen ari dela ukatu ezin bada ere, ardo artean tabernarik taberna bilbainadak eta kanta zaharrak abestearen ohitura mantentzen saiatzen den koadrillarik bada oraindik. Horieta bat “Los Cañeros” Zorrotzako taldea da.



Elu, Dioni, Javi, Fernando, Ana, Jose Mari, Felix, Txusma, Carlos, Felipe, Jon, J. Do-cando, Julio, Patxi, J. Musons, Txetxu eta Joakinek osatzen dute Los Cañeros taldea. Nahiz eta gaur egun kide guztiak Zorrotzan ez bizi, ostegunero elkartzen dira denok auzoan eta Basurtuko “fitxaje” berriekin batera, pote batzuen artean abesti zaharrak eta bilbainadak abesteari ekiten diote. “Ondo pasatzeko batzen gara. Hori baino ez da gure helburua”. Abestea oso gustuko dute eta txikiteoa guztiok elkarrekin ondo pasatzeko aitzakia baino ez dela diote. Taldea auzoan sortu zuten orain dela ia 20 urte, eta nola ez, denbora luze honetan aldaketak somatu dituzte eta halako ohiturak hurrengo belaunaldietan mantentzea oso zaila dela iritzi dute.

Noiz hasi zen Los Cañeros taldea Zorrotzako tabernetatik bilbainadak abesten?

Duela 18 urte hasi ginen. Hasieran taldea askoz txikiagoa zen, baina lagun gehiago batuz hasi ziren pixkanaka pixkanaka. Taldea Zorrotzan sortu bazen ere, gaur egun kide batzuk, nahiz eta Zorrotzan jaio, ez dira hemen bizi. Hala ere, ostegunero elkartzen gara auzoan, eta ez hori bakarrik, Basurtuko lagun berriak ere ekarri ditugu gurera.

“Gurea bezalako koadrillarik ez da geratzen auzoan. Poteoan dabiltzan horietakoak bai, noski, baina abestien ohitura galdu egin da”

“Herri edo auzo bakoitzeko biztanleek ezizen bat zuten. Guk zorrotzarrok genuen ezizena hartu dugu: losCañeros”

Txikiteroak tabernetan aurkitzea ez da gauza erraza izaten. Galtzeko arriskuan dagoen espezie bat zarete?

Gurea bezalako koadrilarik ez da geratzen. Auzoan koadrilak egon badaude, pote batzuk hartzeko batzen diren horietakoak, baina abestien ohitura galdu egin da.

Zer abesten duzue?

Gehien bat bilbainadak dira abesten ditugun kantak. Horrela hasi ginen. Habanerak, euskal kanta zaharrak ere badaude... Guztira 80 abesti baino gehiago ditugu gure “erreportorio” luzean.



“ Zazpi Kaleetan Zorrotzan baino gehiago txalotzen gaituzte. Auzoan askotan ikusiak egongo garelako izango da!! ”

“ Taberna batzuetan ez dute begi onez ikusten abestea. Hobekien tratatzen gaituzten tabernetan denbora gehiago ematen dugu ”

Emakumeentzako lekuri ere badago...

Eskerrak Ana dagoen... Askok laguntzen gaitu. Lehen tabernetan ez zen emakumerik egoten. Oso matxistak ginen! Gaur egun etxeko lanak beste modu batez banatzen dira emakume eta gizonaren artean, baina lehen ez zen horrela. Gizonak lanetik ateratzean batzen ziren pote batzuk hartzeko eta poteo ohitura hori zegoen egunero. Gaur, ordutegiaren erruz, bai gizonek

bai emakumeek lan egiten dute, eta lanetik ateratzean etxera doaz umeeekin egotera...

Nondik dator Los Cañeros izena?

Zorrotzako biztanleei “kañeroak” esaten zigiten. Arrazoia ez dugu oso argi... Antza, Kadaguaren ibarrean, hiltegi zaharra dagoen eremuan hain zuzen ere, kaña asko zegoenez, zorrotzarrak “kañeroak” ezizenez ezagunak ginen. Beste batzuek diotenez, XIX. mendearen bukaeran, kolera izurrite bat jasan zuen Bilboko hiriak eta hildakoak milaka izan ziren. Diotenez, zorrotzarrak oso indartsu zeuden kaña edaten zutelako kausa, eta ez zen bat ere zendu! Olabeagan, “norbegiarrak”, Begoñan, “matxorriak”... Herri bakoitzeko biztanleek ezizen bat zuten, eta guk zorrotzarrok genuen ezizena hartu dugu: “los cañeros”.

Beti ibilbide berdina egiten duzue? Zenbat txikito hartzen dituzue?

Urtez urte aldatu izan dugu ibilbidea. Batzokian hasten dugu poteoa. Arsenio, Luna II, Kupela, eta Encuentro tabernetatik pasatzen

gara... Eta normalean Madness tabernetan bukatzen dugu, hamar pote inguru hartu ondoren. Taberna batzuetan ez dute begi onez ikusten abestea. Beste batzuetan, guk abesten genuen bitartean telebista ozen jartzen zuten... Hobekien tratatzen gaituzten tabernetan denbora gehiago ematen dugu.

Hiru hilabeterik behin, Bilboko Alde Zaharrean egiten dugu poteoa. Atzerritar eta turisteei asko gustatzen zaie guri entzutea. Hango tabernariak esan ohi digute gero eta jende gutxiagok mantentzen duela tabernetan bilbainadak abestearen ohitura.

Zazpi Kaleetan Zorrotzan baino gehiago txalotzen gaituzte. Hemen askotan ikusiak gara!! kar, kar!

Hainbeste urte txikiteoan emanda, tabernetako giroan aldaketarik somatu duzue?

Tabernetan abesten hasi ginenean, jada inork ez zuen egiten. Gazteek ez diete horrelako ohiturei jarraitzen eta normalean, ez dute txikiteoa gustuko... Baina tira, jendea guri entzutea gustatzen zaiolakoan gaude. Eta ez pentsa! ez gara honetarako jaiokak! Ondo pasatzeko gertzen den lagun koadrilla baino ez gara. Lehen, txikitorako edalontzi aproposak zeuden taberna guztietan, 650 gramo pisatzen zuten horietakoak! Orain, horrelarik duten taberna gutxietan lagun bakoitzak bere izena duen edalontzi propioa daukagu, baina hori ez zaio normalean ateratzen ardoa eskatzen duen edonori.

Koadrilla hain handia izanda, boterekin arazorik egongo da noizbait..

Ez, bakoitzak erronda bat ordaintzen du eta listo. Inoiz ez dugu horrelako arazorik izan.

LABURREAN

“Denok elkartzeko hutsa topa egiteko aitzakia ederra da... Baita Athleticen garaipenak ere!!”

Topa egiteko edariren bat?

Ardoa, noski. Eta guk “peleón” edaten dugu! Ez dugu sosik besterako! kar, kar!

Eta topa egiteko arrazoiaren bat?

Guztiok batzea baino ez dugu behar. Denok elkarrekin jarraitzea topa egiteko aitzakiarik onena da. Beno, baita gure Athleticen garaipenak ere! Athleeeeeeeeeetic!

Abesten hasteko tokiren bat?

Zorrotzako edozein taberna. Meson Luna 2n ederki ondo tratatzen gaituzte. Urdaiazpikoa eta txorizoa ematen digute!

Koadrilan sartzeko lagun bat aukeratzeko aukera izango bazenute, nor aukeratu zenukete?

Ez dugu inork behar, baina abestea gustuko eta ondo pasatzeko gogoia duen edonork etor daiteke.

Eta nork mereziko luke Bilbainada eder bat?

lñaki Azkuna alkate ohiak. Berari eskainitako letra bat asmatu dugu.

Dantzari

Camino Zorroegoti 1,

94 612 93 85



drinks



table



music



mood


VÍA gráfica

viagraficazorrotza@gmail.com

Disenya

Garbantzuk tripakiekin



Osagaiak: Tripakiak, Garbantzuk, txahal haragia, txorizo bat, urdai zati bat, 2 kipula, berakatza, perrexila, irina, olioa, gatza eta piperrautsa.

Garbantzuk uretan sartu aurreko egunean. Tripakiak ondo garbitu ondoren egosten jarri txahal haragiarekin batera. Lehenengo ura irakitean aldatu eta, berri batean, gehitu perrexila, kipulak eta urdaia. Garbantzuk beste pertzada batean egosten dira eta tripakiekin nahastuko ditugu egosi ondoren (2 ordu gutxi gora behera) Hau bukatu baino lehen, frijitu bat egin behar da kipula, piperrautsa, irin txigortua, eta tripakien saltsa apur batekin. Bota tripakien pertzadara txorizoarekin batera eta utzi egosten apur bat.

Zailtasun maila	Ertaina - Handia
Prezioa	Urritik maitzera, ostegunero dohainik edariarekin

ARSENIO JATETXEA

Gutxi bezalako taberna goiztiarra gara, astelehenetik ostiralera 6:30etatik aurrera gaude zabalik. Gosariak lantzen ditugu, opilak, arrautzopilak, pintxoak, sandwichak... eskainiz.

Arsenio eta sendiaren usadioari jarraitzen diogu. Ama Carmenen sukaldaritza mantentzen ahalegintzen gara etxeko platerak dituen eguneko menuak eginez, guztion gustokoak diren belarri eta olagarro galego razioak ahaztu gabe. Horretaz gain, plater konbinatuak, otartekoak, eramateko edo bertan jateko pizzak ere egiten ditugu.

Lagunak animatzeko jaiak antolatzen ditugu: zuzeneko musika emanaldiak, kubatar jaiak, "Queimada" dohainik, Inauteriak, Maitaleen Eguna, monologoak, Zorrotzako jaiak, Halloween, eta gaikako jai askotarikoak.

Hermógenes Rojo, 6
Tel. 94 612 93 85



**MESÓN
LUNA**

*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-baztegi propioa
Eguneko menua eta menu bitzartua*

Hermógenes Rojo, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es

Restaurante
Arsenio

Tfno. 94 497 10 03
Hermógenes Rojo, 6
48013 BILBAO

*Pintxo askotarikoak
Menu bereziak (enkarnez)
Eguneko menua*

BARRETA OPTIKA



1989an zabaldu zituen atea **Ibarreta Optikak** Zorrotzan. Alfonso Gea geldiezina "begi-osasun" kontzeptua modernizatzearen helburuarekin agertzen da gurean. Une hartatik, Bilbora ekartzen ditu nazioarteko bilduma abangoardistenak, bai eguzkitako betaurrekoak zein betaurreko graduatuak ere, beti preziorik onenean.

2011. urtetik Bilboko erdialdean ere (Nafarroa kalea 1, Bilbaina eraikina) bi egoitzatan orain dela 26 urtekoak bezalako kezkekin jarraitzen du Alfonsok, bezeroei aholkatzen eta Zorrotzara marka hoberekin preziorik onenean ekartzen.

Ibarreta Optika.

Abaro estarta, 5
Tlfnoa. 94 427 40 80



Piztiaren begiak

Alberto Ladrón Arana. Elkar. 2015



Idazlearen betebeharra irakurleari irakurtzen jarraiaraztea baldin bada, maisuki lortu du Alberto Ladronek Thrillera aitzakia, idazleak hiru pertsonaia (eta umorea) erabiltzen ditu gure Euskal Herriko gizartea irudikatzeke. Jonen egoerak gaur egungo krisia islatzen digu, langabeziak eta lan eskaintzetako elkarriketek pertsona baten bizitza nola baldintzatzen duten erakutsiz. Beste aldetik, Dasilva, enpresari arrakastatsua, txanponaren beste aldean, hori bai, benetan zoriontsua ez dena, mamuak atzetik baitabilzkie. Biak ala biak ez dira batere pozik bizi. Hirukiaren beste erpinean Xabier dugu, kartzelan urteak eman ostean, atera berri eta ondoren mendeku bila dabilen ETAKide ohia, aurreko bien arteko hariak josiko dituen. Noren edo zeren alde egingo duen azken momentura arte ez dugu jakingo. Animatzen zaituztegu liburua irakurtzera, eta genero beltza bultzatzera, batez ere euskaraz idatzia, liburu honek adierazten duen moduan krimenak edota misterioak argitzen saiatuz entretenimendurako baino askoz gehiagotarako balio baitu.



Su garaian

Governors
(Baga Biga. 2015)



Arrasateko Governors taldea bueltan da. Iragan den urtarrilaren 31n Bilboko Santana 27 aretoan emandako kontzertuaren isla dugu "Su garaian" CD eta DVD berri hau. 18 abesti bildu dituzte diska honetarako, eta beraien ibilbidea laburra izan arren, hainbat abesti

faltan soma daitezke. Dena den, DVDan bi gehiago aurkitu ditzakegu osagarri moduan. Zuzeneko berezi honetan hainbat lagun izan zituzten alboan, hala nola Hesian taldeko Zuriñe Hidalgo edota Aitor Antruejo taldeko kitarjole ohia. Bitxikeria moduan Artaman Komunikazioa multimedia enpresarekin batera 360 graduko agertokia prestatu zuten ikuslegoa ahalik eta hurbilen izateko asmoarekin. Gainera, grabaketan 9 kamera erabili zituzten, emaitza benetan ikusgarria lortuz. Post-produkzioari dagokionez, diskaren nahasketa Haritz Harreguyk egin du. Masterizazioa, aldiz, Estanis Elorzaren ardura izan da.



Zure iritzia jakin nahi dugu. Bidalguzu zure artikulua **zmorrotz@gmail.com** helbide elektronikora gaiaren laukian "iritzia" jarri. Eskerrik asko!

EUSKARAREN ERABILERA EZ SEXISTA



Andereño hitza entzutean, seguru guztiok gogora datozkigula txikitan hainbeste maitatu izan ditugun maistrak, baina... inoiz pentsatu al dugu nondik datorren terminoa? Harluxet hiztegi entziklopediakoaren arabera: iz. 1. *Emakume ezkongabea; batez ere traetaera gisa erabiltzen da, deituraren ondoan. Adib. Urrutia andereñoa.*

2. *Eskolako emakumezko irakaslea.*

Lehenengoarekin hasteko, gizonezkoentzat ez dago ezkongabe egoera markatzeko erarik, mutil ezkongabeak jaunaka tratatuak izango direlarik. Gainera, gaur egungo gure gizartean, presentzioetan pertsonen egoera zibila ezagutzea ez da batere beharrezkoa. Beraz, Emakunderen ustez, "andrea" erabili beharko genuke

errespetua adierazi nahi diegun emakumeak izendatzeko, "jauna" hitzaren balio-kide bezala hartuz.

Eskolako irakasle bezala, andereño hitza garai bateko errealtatearen isla da, 60-80ko hamarkadetakoa maistrak izendatzeko erabilia; hasieran, ezkondu gabeko emakumeek irakaskuntzan jarduten zutelako (hainbat omenaldi eta sarirekin euskarazko irakaskuntzaren bide urratzaile aitortuak izan direnak). Gaur egun, hitzaren erabilera ez du zerikusirik irakasle-emakumeen egoera zibilarekin, gatazkarik sortu gabe erabilia izanda. Hala ere, terminoa garai bateko irakasle horiek izendatzeko espezifikotzat hartu eta maistra hitza erabiltzen hasi beharko genukeela dioten ahotsak badaude.

Bakoitzak, bere aukera egin dezala.

SALAKETA ARGAZKIA



Auzoko herri mugimenduak goikaldeko auzuneetarako sarbide mekanikoak eskatzen 20 urte eman ondoren, azkenean Udalak igogailu-funikularra inauguratu zuen zalaparta handiarekin. Teknikoen arabera, eremurako formaturik aproposena da, gurpil-aulkiak eta haur-kotxeak sartzeko aukera ematen baitu, baina ez da behar bezala heltzen Zazpi Landa errepedeko bus geltokira.

Ez legoke txarto, 800 mila euro inguru gastatu eta 7 hilabeteko lanak egin ondoren, hormigoizko beheko partea pixka bat apaintzea, honela ikuste-inpaktua txikiagotuz. Akaso, igogailua erdialdean egongo balitz, horrela utziko lukete? Ezetz uste dugu.

Usandizaga musikaria kaleko igogailua, lanetan jarraitzen du. Espero dugu kasu honetan egin diren hutsak ez errepikatzea.

Kultur jarduerak udaberrian

Benetan eskasa da Bilboko Udalak gure auzoan programatzen duen kultur ekitaldien kopurua, Bilboko beste auzoekin alderatuta. Neurri handi batean auzo mugimenduaren aldarrikapenei esker, urteko urritasun hori maitzean nolabait konpontzen da.

Izan ere, bi motatako kultur eskaintza heltzen zaizkigu zorrotzarroi loreen hilean; alde batetik, Klown Jaialdia, bestetik, film laburren emanaldiak.

Klown Jaialdia, nire ustez, nahiko finkatuta dago auzoan eta urtetik urtera ume zein nagusi askorentzako gustuko hitzordua bihurtu da. Izan ere, aurtengoa 6. edizioa izan da eta lehenengo urtetik oihartzun eta ikusle nahikoa bereganatzen dute Azoka Parkera ekarzen dituzten ikuskizunek.

Kalean egiten diren ekitaldiak izanik, eguraldiarekiko menpekotasuna nabarmena da ekitaldiak gauza daitezen. Horregatik, behin baino gehiagotan bertan behera geratu behar izan da ikuskizunen bat, euria edo eguraldi eskasa direla medio. Zorionez, arazo hau erabat konponduta egongo da laster,

Azokako frontoia estalita denean, Udalak auzoko elkarteei emandako hitza betetzen baldin badu, behintzat.

Udaberriko bigarren kultur eskaintza, 2013tik egiten da Auzo Etxeko areto nagusian. Maitezeko lau ostegunetan zehar bertaratzen den jendeak mota eta herrialde askotako pelikula ikusteko aukera izaten du. Batzuk dokumentalak dira, besteak, animazioak, gehienak fikziozkoak; serioak edo barregarriak, guztiak partekatzen dute zerbait, hots, iraupen laburrekoak direla.

Begibistakoa da kultur eskaintza hau ez dela bestea bezain arrakastatsua. Egia da jarraitzaile fidelak dituela eta nolabait handitu dela ikusleen kopurua lehenengo ediziotik hona, baina aitortu behar da jende gutxi joaten dela Auzo Etxera pelikula motz eta bitxi horiek ikustera. Nik uste dut auzotar askok oraindik ez dutela pelikula hauen berri; are gehiago, ez dela ezagutzen proiektatzen diren filmeen kalitatea. Izan ere, gehienak Zinebi jaialdian eman dira eta aurten, lehenengo aldiz, Fant jaialdian botatako pelikulak ere ikusi ahal izan ditugu Zorrotzan.

Linea hauetatik gure auzoko zinemazaleak deitu nahi nituzke, hurrengo edizioetan animadaitezen zinema ezberdina dastatzera. Horrela ikuslegoa gehituko da eta Zorrotzak merezi duen kultur eskaintza hau bermatuta geldituko da, jakinik zinema mota hau berez gutxiengo baten gustukoa dela.

Karlos Rodriguez


- BAIMEN GUZTIAK
- MATERIA ARRISKITSUEN GAINEO IKASTAROK
- GARRAIOLARIENTZAKO TREBAKUNTZA-IKASTAROK
- GIDARIEN GAITASUN AGIRIA (GGA)



EGUZKITAKO BETAURREKO GRADUATUAK



Ez badigute amesten uzten, ez diegu lo egiten utziko



Periko Solabarria ezker abertzaleko militante gazteak utzi gaitu 85 urterekin. Azken unerarte Euskal Herriaren aldeko borrokan lehen lerroan izan dugu lagun. Zenbat eta zaharrago, Zenbat eta gogorrago eutsi dio borrokaren gorriari. Maitasun osoz, agur eta ohore Periko!

Lantegi edo kalea izan, borrokan bizi izan da Periko beti. Borroka maitatuz eta mai-

tasunez borrokatuz, zapalduenekin batera amorerik eman ez duen iraultzaile nekazina izan dugu. Egun Euskal Herria bizirik baldin bada, bera bezalako militante konprometuei esker izan da. Hortzak erakutsi behar zirenean hortzak erakutsiz eta lagundu behar zenean lagunduz.

Gazteok ere bere ondoan borrokatzeko parada ederra izan dugu. Ez dugu sekula ahaztuko milaka gazteoi Gazte Danbada eman dako lektzioa. 85 urteko gazte borrokalaria joan zaigu baina berak erakutsitako borrokarako tinkotasun eta koherentzia gure barnean geratzen dira. Duintasun eta eredu izan zara eta izango zara Periko.

Ez dago adiorik, geroarte bat baizik. Zuk egindako bidean jarraituko dugu oinez, oinak lokatzetan eta irribarrea aurpegian ditugula. Besarkada eta animorik sentikorrenak bere familia eta senidei. Zuk esan bezala lagun, ez badigute amesten uzten, ez diegu lo egiten utziko.

Agur eta ohore! Garaipenean elkartuko gara!



**FARMAKOTEGIA
SUSANA
URRITIKOETXEA**

Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tlfn. 94 441 61 46


Iragar zaitez

ZM

ZORROTZ MORROTZ
aldizkarian!

Euskara sustatu
Zorrotzan!

Tarifak eta informazioa: zmorrotz@gmail.com



140 umek eta gaztek baino gehiagok parte hartuko dute Gure Lurrak antolatutako jardueretan

Zenbakiak garrantzitsuena ez direla erabat sinetsita bagaude ere, gauzak zertan diren ikuspegi objektiboa izateko aukera eskaintzen digute zenbaitetan. Alde horretatik, erakunde osatzen dugun kideok, hau da, langile, bolondres edota kolaboratzaileok, badugu zer ospatu amaierara ailegatzeaz dagoen ikasturte honetan. Zorrotzako Hargunean, 48 plaza dituen baliabidea, 5 eta 9 urte bitarteko 46 neska-mutiko egon da modu iraunkor batez eta ikasturte osoz. Kideguneak, 10 eta 12 urte bitarteko gazteak hartzen dituenak, zituen plaza guztiak bete ditu (30etik 30, hain zuzen). Gazteguneak, berriz, ikasturtea 122 bazkiderekin amaitu du, seguru aski, Bilbon dauden Gazteguneeetatik zenbakirik altuenetako. Azkenik, Aisialdi Zentruak 80 kide baino gehiago ditu, eta jarduerak 50 pertsona izan dute batez beste -itxaron-zerrenda suertatu da maiz, balibide nahikorik ez baikenuen.

Udarako antolatu ditugun ekintzei dagokionez, marka hautsi dugulakoan gaude. 140 umek eta gaztek baino gehiagok parte hartuko dute Gure Lurrak antolatutako jardueretan. Aurtengoan, berrikuntza gisa, "Zorrotza. Koloredun auzoa," hiri udalekuak jarri ditugu martxan. Uztailaren lehenengo hamabostaldian sorkuntza, norbanakoaren autonomia,

baloreetan oinarritutako hezkuntza edota, gorputz-adierazpena, besteak beste, garatuko dituzte auzoko ume zein gazteek. Jarduera honetan, jantoki zerbitzua ere eskaini nahi izan diogu lanaldia eta aisialdia bateratzeko arazoak izan litzaketen guraso orori. Hilabetearen bigarren hamabostaldian, berriz, Villeda de Losa (Burgos) herrira joko dugu 50 ume eta neraberekin, bertan urteroko Udako Kanpamendua egingo dugu, urteko unerik politena hezkuntzari dagokionez. Gainera, eta Udalaren laguntzaz, Udako Jolastokia programa eramango dugu aurrera auzoko txikienekin (4-6 urte).

Zenbakiak zenbaki, erabat positiboak direnak zalantza izpirik gabe, ezin dugu aipatu barik utzi krisiak gehien astintzen dituenak auzoko umeak direla, egunerokoan sumatzen dugula gurera datozen umeengan. Hala, ezinbestekotzat jotzen dugu gehien behar duten familientzako neurri sozioedukatiiboak harzea. Hor gaituzue eta hortxe izango gaituzue! Zorrotza sozialki justuago baten alde lanean. Uda ona pasa!


gurelurra
elkartea



MADNESS KAFETEGIA
Elena eta Javier
Zalbitza estara, 5 - atzea
ZORROTZA
48013 BILBO

MADNES

Tel. 94 441 62 75



**Pizzeria
Jatetxea**

La Viña de Oro

Zorrozgoiti 1 · 944 994 247



BAR VENECIA

Espezialitateak:
Kafea, tortilla, tortilla beteak
eta bestelako pintxoak

Abaro estarta 10

AUPA ATHLETIC



**AUTO ESKOLA
KAIKU**

Liderra Ezkerraldean

Zorrotza Kastrexana, 1
Tlfno: 94 427 88 10



Julián

Zorrotzan, udan ez da ia inor geratzen eta denda eta tabernak itxita daude. Umeak aspertzen dira ez dagoelako zer eginik.



Elena

Umeentzako "Jolastu Parkean" zegoen eta krisialdiaren aitzakiarekin udalak kendu egin du. Helduentzat ez dago ezer eta ez da inoiz ezer egon.

Aisialdia udan:

Zorrotzan, badago eskaintza nahikorik?

Iratze Pérez



Tensi

Oso gutxi dago. Udalak aurrekontua murriztean, lehen zeuden aktibitateak kendu ditu. Umeak oportretan daude eta gurasoak lanean badaude, amona-aitonei esker pasatzen dituzte opor onak.



Ziortza eta Irati

Ez dago gauza askorik. Udan jendea badao eta asperraria da hemen egotea. Gainera, ez dago aktibitate askorik.



Javi

Udan aisialdirako eskaintza gutxi dago guztiontzat. Urtean zehar, umeentzako aukera asko, baina helduentzako oso gutxi beti ere.

Jai-Alai
kafetegia



Abaro estarta, 12
94 490 12 59

Regalos
Omega
oparidenda

Frai Juan 19
Omega galeriak
Zorrotza

94 482 03 66

www.omegadata.es.com



Taberna
MITOR
José eta Juan Carlos

Soka kalea, 11. Zorrotza
Tel. 94 482 07 96

BAR
MOY
ATHLETIC CLUB



Berezitasunak: Txanpiak,
Hanburgesa eta sandwich
erraldoiak

ZORROTZA KASTREXANA, 21
© 944 360 702

aek

UDAKO IKASTAROAK 2015

BARNETEGI IBILTARIAK



OINEZ

MINTZA PRAKTIKA
EGITEKO

- GORBEIA
 - ORIXOL
 - LEINTZ
 - GATZAGA
 - ARANTZAZU
 - AIZKORRI
 - SAN ADRIAN
 - LIZARRUSTI
 - ARALAR
 - OTSOLA
 - BELATE
 - SAIOA
 - SOROGAIN
 - GARRALDA
- HIRIBERRI
 - ABODI
 - ORHI
 - LAKARTZELA
 - IRATI
 - BELAGUA
 - EZKAURRE
 - HIRU ERREGEEN MAHAIA



530€

UDAN ERE EUSKAHALDUNDU ZAITEZ!

uztailaren 18tik abuztuaren 1era. izena emateko azken eguna: Uztailaren 8a

Izena emateko
630 148 159
ibiltaria@aek.org

673 200 100 · 946 464 000 · www.aek.eus

Informazioa gehiago: www.aek.eus/barnetegiak/ibiltariak/



UDAKO IKASTAROAK 2015

**UDAN ERE
EUSKAHALDUNDU
ZAITEZ!**

aek



EUSKALTEGIAK

IKASTARO TRINKOAK,
EUSKALDUNTZEA
AZTERKETAK PRESTATZEKO
ON LINE IKASTAROAK



**2 ASTEKO
BARNETEGIAK**

EUSKARA ESKOLAK
EUSKARAZ BIZITZEKO ALKERA
AZTERKETAK PRESTATZEKO



**FAMILIA
BARNETEGIAK**

EUSKARA IKASTEKO
SEME-ALABEKIN
EUSKARAZ ARITZEKO



**BARNETEGI
IBILTARIAK**

ONIEZ ZEIN BIZIKLETAZ
MINTZAPRAKTIKA
EGITEKO

673 200 100 · 946 464 000

www.aek.eus

aek

Garapen Soziala
erabiltzen duena
gizartearen onerarako

